Entzun Oinarriak landatu ditzagun, etorkizuna erein dezagun



ETAPA: BATXILERGOA

7 ENERGÍA ESKURAGARRIA ETA EZ KUTSATZAILEA
13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

sed Solidaridad | Educación | Desarrollo

FUNDACIÓN EDELVIVES · prodade yanapay · proide · PROCLADE FUNDACIÓN · proideba · SIL La Salle France

PROYDE PROEGA · PROYDE · EDIFICANDO La Salle Maravillas · La Salle FOUNDATION · SOPRO · La Salle International Foundation

1. IKUSPEGIA: 2030 AGENDA ETA KLIMAREKIKO KONPROMISOA

HELBURUAK:

- Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuak ezagutzea.
- Parisko Hitzarmena eta nazioarteak klimarekin hartutako konpromisoa ulertzea.
- Laudato si eta konpromiso ekologikoa ezagutzea.

MATERIALAK:

- Interneterako konexioa duten tableta edo ordenagailua.
- GIHetako materialak, deskargatzeko: https://unric.org/it/agenda-2030/ (ITA)
- A4 orriak edo birziklatutako kartoia.
- Laudato si eta Fratelli Tutti entzikliken testuen fotokopiak.

GARAPENA:

0. JARDUERA

15 minutu.


Kanpainaren bideoa ikusiko da, eta edukiari buruzko eztabaida egingo da.

1. JARDUERA

20 minutu.

Ikasleak binaka edo hirunaka jarriko dira.

Bikote edo hirukote bakoitzak Interneteko konexioa duen ordenagailua edo tableta izan behar du.



Herrialdeko eta nazioarteko egunkarien webguneak emango dira, ikasten ari diren edo dakizkiten hizkuntzak aintzat hartuta, bai eta nazioarteko erakundeen guneak, herrialdeko edo nazioarteko GKEak eta horrelakoak ere, aurreko irizpidearen ildotik.

Proposatutako webguneei dagokienez, arreta edo interes handiena biltzen duten gai "globalak" zein diren ikertuko da.

2. JARDUERA, OSOKO SAIOAN

20/30 minutu.

Talde bakoitzak bere emaitzak aurkeztuko ditu, aukeratu duena zergatik aukeratu duen azalduko du, eta gai-multzoen arabera bilduko ditu horiek irakasleak edo animatzaileak; 2030 Agendarekin lotuta ere egon daitezke gai horiek.

Gai batzuk ez dira bateragarriak, hala nola giza eskubideak edota migrazioa... Zergatik?

3. JARDUERA

10 minutu.

2030 Agendako 17 helburuen aurkezpena.

https://www.youtube.com/watch?v=8bmtQliL9bw (ITA)

4. JARDUERA

15 minutu.

Presentación del tema: Acuerdo de París.


Negociaciones sobre el clima https://www.youtube.com/watch?v=2c8g-qjN1vc&list=PLPz2rehWJay1cdX3H9PJfKxd8XtEQHzDc&index=4

COP21 https://www.youtube.com/watch?v=QPWhvSI1KhA

https://www.youtube.com/watch?v=xjVhyVpCGc0

Zer konpromiso jasotzen dira, gure herrialdeari dagokionez?

https://www.camera.it/temiap/documentazione/temi/pdf/1104844.pdf



5. JARDUERA

30 minutu

Aurkezpen labur baten ostean, Laudato si eta Fratelli Tutti entzikliketako pasarte batzuk banatuko zaizkie ikasleei, eta gogoeta pertsonalerako tarte bat utziko zaie (10 minutu).

Ondoren, irakurri dutenari, sentitu dutenari eta abarri buruzkoak partekatzeko tarte bat utziko da.

6. JARDUERA

15 minutu.

Errealitate pertsonala eta tokiko errealitatea kontuan hartuta, 2030 Agendako 17 helburuetako eta entzikliketako zer gai diren garrantzitsuak aztertuko da.

Azterketa horretan sakontzeko:

Honako dokufilm honen lehen bi zatiak ikustea iradokitzen dizuegu: DOMANI (BIHAR) https://foto.luckyred.it/press/domani/domani_pressbook.pdf

Bihar: https://drive.google.com/file/d/1gOIcYxbIRZAy4yv05xBAlTewKVTErti3/view?usp=sharing



2. IKUSPEGIA: KLIMA-ALDAKETAREN ARRAZOIAK

HELBURUAK:

Laburpena

Saio honetan, Antropozeno hitzaren definizioa lantzen hasiko dira ikasleak, eta aro horren hasierako data identifikatzen saiatuko dira, eztabaida bidez eta konparazioak eginez. Giza jardueraren esparruko joera globalei buruz zenbait datu bilduko dituzte grafiko batean. Datuak agerian jartzean, Antropozenoaren eragin negatiboak konparatzeko aukera izango dute. Gero, ekintza-plan bat sortuko dute ikasleek GIHetako bat lortzeko, eta ikastaldean aurkeztuko dituzte beren planak.

Ikasleak gai izango dira:

- Antropozenoa identifikatu eta azaltzeko.
- Giza faktore eta faktore natural batzuek klima-aldaketa globalean eragina dutela ulertzeko.
- GIHen esanahia azaltzeko.
- Klima-aldaketaren norabidea aldatzen nola lagundu dezaketen jakiteko eta azaltzeko.

MATERIALAK:

Lantalde bakoitzeko:

- Orri laukidun bat
- Datu multzo bat (ikusi eranskina)
- GIHen txartel bat, aurrealdean NBEren grafikoekin eta atzealdean azalpenekin
- Bi inprimagailu-paper zuri
- Poster zuri bat
- Errotuladore sorta bat

GARAPENA:

1. JARDUERA:

Antropozeno hitza aurkeztuko die irakasleak ikasleei, eta zer esan nahi duen galdetuko die. Terminoaren definizioa emango die. Denbora geologikoaren eskala edo antzeko irudiren bat erakutsiko die, eta eskala horretan Antropozenoa non kokatuko luketen galdetuko die. Haien ustez noiz hasi zen eta zergatik galdetuko die, eta arbelean idatziko ditu zenbait ideia, ikasleek gogoan hartu dezaten eztabaidatutakoa.

Esteka interesgarri batzuk:

- https://youtu.be/3WpaLt_Blr4
- https://youtu.be/mfDm7rM9_-8
- https://youtu.be/vW6HlrPtuu8

2. JARDUERA:

Antropozenoaren jatorriari buruzko eztabaida

1. Irakasleak azalduko die hiru aukera daudela Antropozenoaren hasiera identifikatzeko: nekazaritzaren aurkikuntza, Industria Iraultza eta Bigarren Mundu Gerra osteko garapena. Ikasleak hiru taldetan bildu ondoren, hiru kausetako bat esleituko die irakasleak. Taldetan bilduta, esleitu zaien hipotesia babestuko duten argumentu zenbait identifikatzeko eskatuko zaie ikasleei.

2. Debatearen hasiera: talde bakoitzak 30 segundo izango ditu taldeko hizlaria izendatzeko. Hizlari bakoitzak 2 minutu izango ditu taldean identifikatutako argumentuak aurkezteko. Aurkezpenak amaitzean, begiak ixteko gonbita egingo die irakasleak ikasle guztiei, eta eskua altxatuz gehien konbentzitu dituen aurkezpenaren aldeko botoa emateko eskatuko die.

3. Azalpena: talde guztiek dute la arrazoia esango zaie. Azalduko die Antropozenoaren ikertzaile entzutetsuenak ere ez direla ados jartzen hasierako dataren inguruan. Eta zergatik den horrela beren ustez galdetuko die. Askotarikoak izan daitezke arrazoiak; esate baterako, oraindik Antropozenoan bizi garelako, eta, horregatik, beste aro geologiko batzuekin alderatuta, ezin dugulako behar besteko distantziarik hartu aztertzeko; “giza eragina” neurtzeko modu desberdinak daude, gainera; aro edo

garai bakoitza oso desberdina da, eta horietako bakoitzak hainbat gertakari eta aldagai ditu ezaugarri, gizakiari lotuak edo ez, etab.

3. JARDUERA:

Adierazpen grafikoa lantzen hasiko dira jarduera honetan ikasleak, talde txikitan bilduta. Taldeak osatu ostean, zenbait datu multzo emango zaizkie (aukeratu eranskinean taldeen artean banatzeko eskaintzen diren datu multzoen artetik bat), bai eta errotuladoreak eta orri laukidunak ere. Ikasleek grafikoki adierazi behar dituzte datu multzo horiek. Grafikoa egin ondoren, talde txikitan galderen inguruan eztabaidatzeko gonbita egingo die irakasleak:

- Harrigarria al da grafikoa? Zergatik? Zergatik ez? Zer ondorio atera daitezke?
- Grafiko honetan, zer giza faktorek eta zer faktore naturalek eragiten dute gehien??

Ikastalde osoan eztabaidatzeari ekingo zaio, talde bakoitzak landutako datuak erantsiz honako galdera hauen bidez:

- Deskribatu grafikoen artean ikusten dituzun loturak.
- Zer lotura du honek iraunkortasunarekin?

Grafikoen azterketak agerian jarriko du datuak gainjarri egiten direla. Antropozenoa existitzen da, eta inpaktu nabarmenak ditu. Ikasleek honako ideia hau mamitu behar dute: ekintza pertsonalek eraginak dituzte etorkizunean.

4. JARDUERA:

Osatu zenbait talde berriro ere ikasgelan. Aldaketa saihesteko beren testuinguruan gauzatu ditzaketen ekintza jakin eta egingarri batzuk pentsatzeko eskatuko zaie.

Jarduera amaitzerako, izan prestatuta aurkezpen ba

3. IKUSPEGIA: ENERGIA GARBIA, ETA ENERGIA AURREZTEKO JARDUERAK

HELBURUAK:

- 2030 Agendako 7. Garapen Helburua, "Energia eskuragarria eta garbia", ulertu ahal izateko beharrezkoak diren argumentuak hobetzen esku hartzea.
- Gure planetari begira erabat aldatu beharra dugula ulertzen laguntzea ikasleei, energia-iturri berriztagarrien erabilera kontuan hartuta.
- Energia aurrezteari eta aurrezteko moduei buruz nahiz eguneroko bizitzan aplikatzeko bideei buruz eztabaida ireki bat eginez, ikasleak sentiberatzea.

MATERIALAK:

Publizitate-panelak, errotuladoreak, proiektorea, ordenagailua, tableta, telefono mugikorra, Mentimeter softwarea, Microsoft Office paketea duen tableta edo ordenagailua

GARAPENA:

Energia-iturriak (berriztagarriak eta berriztaezinak).

- Ea energia berriztagarriei eta berriztaezinei buruz ezer entzun duten galdetuko die irakasleak ikasleei, eta ea badakiten zertan bereizten diren. Bien bitartean, bi zutabe dituen taula bat marraztuko du irakasleak arbelean, ikasleek ematen dituzten ezaugarriak eta erantzunak alderatu ahal izateko. Irakaslearen esku-hartzearekin amaituko da une interaktiboa, bi energia motak definituko baititu, bereizketa egiteko.
- Honako galdera hau egingo dio irakasleak ikastalde osoari: "Zein dira energia-iturri berriztagarriak?"; ikasleek banaka erantzungo diote galdera horri, tabletaren bidez edo sakelako telefonoaren bidez, Mentimeter software interaktiboa erabilita.
- Ikasgelan arbel interaktiboa badute, irakasleak arbel horretan proiektatuko ditu emaitzak; halakorik ez badute, ordenagailua erabiliko da, eta proiektagailura konektatuko da.

- Munduaren funtzionamendurako energiak duen garrantzia ulertarazteko, beste galdera bat planteatuko du irakasleak: "Zer esan nahi du energia garbia eta eskuragarria izateak?". - Eztabaidarako denbora

Energia eskuragarri izatea:

- Ezinbestekoa da gizarteko sektore ekonomiko guztietarako.
- Pertsonen ongizatea sustatzea da, eta pobrezia murrizten du.
- Funtsezkoa da pertsonen oinarrizko beharrak asetzen direla bermatzeko.

Energia berriztagarriei buruzko azalpenetako lehen fasea 7. GIHari buruzko laburpen-bideo batekin amaituko da: Energia garbia eta berriztagarria.

- https://www.youtube.com/watch?v=ActMnM81N4U
- https://www.youtube.com/watch?v=_kwMVRKwiDA
- https://www.youtube.com/watch?v=jlWfQoycRPE (en inglés).
- https://www.youtube.com/watch?v=eGAtNiWgAmA (en inglés).

1. JARDUERA:

Taldetan bilduko dira ikasleak; gure herrialdean energia-iturri berriztagarrien erabilera mailari buruzko datu estatistikoak bilatuko ditu Interneten talde bakoitzak, eta laburpen-izaerako grafikoak osatuko ditu (ideia nagusia: Excel orri batean); eskuz ere egin dezakete, kartel baten bidez.


Energia elektrikoa / Energia hidroelektrikoa energia berriztagarri nagusietako bat da

Energia elektrikoa eta energia hidroelektrikoa zer diren azalduko du irakasleak, diapositiba gutxi batzuk biltzen dituen PPT aurkezpen baten bidez. Energia hidroelektrikoaren abantailak eta desabantailak.

2. JARDUERA:

Espainian zentral hidroelektrikoek duten presentzia eta eragina ikertzea, eta zer ingurumen-inpaktu dituzten jakitea. (Internet bidezko ikerketa)

Energia aurreztea / ekonomia zirkularra.



Gaiei buruzko azalpenak. Zer da ekonomia zirkularra? Zertarako balio du energia aurrezteak? PPT aurkezpen baten bidez egingo da, eta honako bide hau euskarritzat hartuta: https://www.youtube.com/watch?v=rRRF0qAqh2Q

Eztabaida irekia osoko bilkuran:

- Zer egin dezakegu herritarrok gure eguneroko bizimoduan energia aurrezteko? Gure kontsumo-ohitura onak batzen baditugu, kontsumo globalean eragin esanguratsua izatea lortuko dugu.

- Baliabideen kudeaketa eraginkor baterantz: maximora minimotik: optimizazioan datzan ekonomia. Eraginkortasun energetikoak dakartzan onurei buruzko ilustrazioa: kutsaduraren murrizketa; energia aurreztea eta dirua aurreztea; energiaren eskuragarritasuna; garapen ekonomikoa eta lan-merkatua; ingurumenaren gaineko eragin positiboak; osasunaren gaineko eragin positiboak...

3. JARDUERA:

Eraginkorrak ez diren etxeei buruzko azterketa-artikulua: eraginkortasun energetikoa, Legambiente txostena, repubblica.it 2018ko uztailaren 23a;

4. JARDUERA:

Taldekako gogoeta

- Zer da eraginkortasun energetikoa?

- Zenbat aurreztu daiteke energiaren ikuspegitik eraikuntzaren modernizazioarekin?

- Aplikatu al da gure herrialdean berriki energiaren aurrezpenaren aldeko zerga-politikarik?

5. JARDUERA:

Ikuskaritza energetikoa – eskola-eraikinaren oinarrizko ezaugarrien azterketa: isolamendu termikoa, argiztapena, erabiltzen diren gailuak edo argindarraren erabilera; gastu energetiko jakin bat eragiten duten egiturazko arazoen ulermena, eta izan ditzaketen irtenbideei buruzko gogoeta bultzatzea.

4. IKUSPEGIA: KONTSUMITZAILE ARDURAGABE IZATETIK KONTSUMITZAILE KRITIKO IZATERA

ARLOAK:

- Filosofia
- Matematika (estatistika)
- Erlijioa
- Historia
- Ekonomia

HELBURUAK:

- Gure bizierek uzten duten aztarna ekologikoaz kontzientzia handiagoa hartzea.
- Erosten ditugun gauzen kalitateaz, etikaz eta ingurumen-inpaktuaz zentzu kritiko handigoa bultzatzea.
- Ingurumenarekin errespetu handiagoz jokatuko duen bizimodu bat hartzeko aukerei buruz gogoeta egite

MATERIALAK:

- Kartelak
- Post-itak
- Errotuladoreak
- Arkatzak
- Bolalumak
- Telefonoa/ordenagailu

TIPOLOGÍA:

- Aurrez aurreko ikaskuntza
- Taldeko jarduerak
- Laburpenak egiteko eta ikastalde osoan bateratzeko jarduerak
- Amaierako gogoeta partekatua

0. JARDUERA: AZTARNA EKOLOGIKOA

Irakasleak, jarduera-plan honi ekiteko, test txiki bat egiteko eskatuko die ikasleei, online, telefono, tableta edo ordenagailu bidez: :https://www.footprintcalculator.org/

Proba horretan, ikasleei beren bizieraz galdetuko zaie; adibidez, zenbat kontsumitzen duen beren ziklomotorrak, halakorik badute, zenbatean behin jaten dituzten haragia edo animalia-produktuak, etab.

Zenbait aukeraren artean bat hautatzeko eskatuko zaie; horietako batzuk bitxiak irudituko zaizkie agian, honako hau, esate baterako: “zer materialez dago eginda zure etxea? Lastoz, adreiluz, banbuz". Beraz, argi utzi behar da halako proba global bat dela, munduko edozein bazterretako edonork erantzuteko moduan diseinatutakoa.

Osatu ostean, munduko biztanle guztiak ikasleak eurak bezala biziko balira zenbat Lur planeta beharko liratekeen erakutsiko die probak. Berriro ere, argi utzi behar zaie ikasleei bizitzeko eta kontsumitzeko modu asko daudela gaur egungo munduan, zer herrialdetan eta zer gune geografikotan gauden kontuan hartuta. Gure biziera hau posible bada, kualitatiboki munduko hainbat tokitan gure bizi maila baina apalagoa dutelako da.

Guztiek proba egin dutenean, ikasleek beren erantzunak adieraziko dizkiote elkarri, eta ikusi berri dutenaren esanahiari buruzko gogoeta bateratu bat egin dezakete talde osoan.**ACTIVIDAD 1 : ¿QUÉ COMPRAMOS?**

Honako kartel handi hau erakutsiko die irakasleak ikasleei, lantegia garatzeko behar izango baitute:

Lau taldetan banatuko da ikastaldea: ELIKAGAIAK; EDARIAK; JANTZIAK; ETXEKO PRODUKTUAK ETA KOSMETIKOAK.

Esleitutako lan-arlo bakoitzean oinarrituta, ikerketa bat egin beharko du talde bakoitzak, eta egokitu zaion kategoriako hamar produktu aukeratu beharko ditu gutxienez.

Post-it paper zatietan idatziko ditu talde bakoitzak aukeratutako produktuak (adibidez, 10 produktu = 10 post-it), eta 45 minutu izango dituzte horien ingurumen-inpaktua aztertzeko; ondoren, honako hiru kategoria hauen arabera kokatu ahal izango dituzte kartelean:

1. Uraren kontsumoa: https://waterfootprint.org/en/water-footprint/

2. Ingurumenean barreiatuta dauden gai toxikoak (atmosferan txertatutako Co2-a; gai kimikoak, etab.) https://www.2030calculator.com/

3. Ontziak ezabatzea (plastikoak, kartoiak, metalak, etab.);

Produktuak ur-kontsumo handia eskatzen badu, “Ura” erpinean ezarriko da post-ita. Produktuak ur-kontsumo handia eskatzen badu eta ontzia desegitea zaila bada, Ura eta Ontziak/bilgarriak batzen dituen aldean kokatuko da. Produktua hiru ikuspegietatik begiratuta oso kutsatzailea bada, zirkuluan kokatuko da post-ita.

Hortaz, gutxien kutsatzen duten produktuak zirkuluaren inguruan eta goiko erpinetik urrun daudenak izango dira.

Ikerketarako utzitako 45 minutuak iragaten direnean, talde bat (txandaka) mahaira gerturatuko da, hamar post-itak dituen kartelaren ondora.




Produktu bakoitza (post-ita) erakutsiko dio taldeak ikastalde osoari, eta zera eskatuko die ikaskideei: karteleko triangeluan non kokatu behar duten asmatzen ahalegintzeko.

Taldeak, jada gai hori ikertu duenez, asmatuko du hutsegiteak zuzentzen eta ohar bakoitza dagokion tokian ezartzen.

Talde guztiek gauza bera egin dutenean, egin duten horri buruz orientabidea eman diezaieke irakasleak, eta honako gogoeta hau egitera gonbida ditzake: produktu oro, baita ekologikoena ematen duena ere, kutsatzailea

izan daiteke, kontuan hartu ez genuen ikuspegi batetik begiratuta, eta, horregatik, oso garrantzitsua da zer erosi erabakitzerakoan arretaz jokatzea. Gure aukeraketak ekologikoagoak izan daitezen baina horregatik gure bizierari uko egin beharrik izan ez dezagun zer egin daitekeen hausnartzera gonbida ditzake irakasleak ikasleak; esate baterako, nola aukeratu ontzi gutxiago erabiltzen dituzten produktuak, edo nola murriztu beste produktu batzuen kontsumoa (kontsumitzeari utzi beharrean),



edo zer irtenbide hartu ingurumen-inpaktua murrizteko (birziklatzea, iragazkiak, etab.)

1. TALDEA: JANARIAK ETA EDARIAK

Supermerkatuetan izaten diren produktuak azter ditzakete ikasleek, hala nola arrautzak, haragia, arraina, barazkiak, aperitiboak, etab. Produktuak aztertzean, marken artean aldeak aurkitu ditzake taldeak, edo produktu freskoen eta ontziratuen artekoan, 0 km-ko produktuen edo nekazaritza ekologikotik datozen produktuen artekoan, etab.

2. TALDEA: EDARIAK

Askotariko edariak azter ditzake taldeak, hala nola ura, esnea, freskagarri karbonatatuak, kafea, ardoa, garagardoa, likoreak..., kontuan hartuta etxean izan ohi ditugun edariak edo taberna, jatetxe edo pub batean eska daitezkeenak, eta markak eta ontzirako moduak ere bereizi daitezke (kartoia, beira, plastikoa).

3. TALDEA: ETXEKO PRODUKTUAK ETA KOSMETIKOAK

Etxeko garbiketetarako erabiltzen diren produktuak hartuko ditu ardatz taldeak, hala nola ontziak garbitzeko detergenteak, karearen aurkako produktuak, arropa garbitzeko detergenteak, eta abar, bai eta kosmetikoak ere (makillajea, gorputza eta ilea zaintzeko produktuak, kremak, etab.). Markak eta motak ere konparatu ahal izango ditu taldeak (BIO produktuak, krudeltasunik gabekoak, mega-aurrezkia, etab.), bai eta banatzeko modua ere (supermerkatuak, lurrindegiak, etxez etxeko saltokiak).

4. TALDEA: JANTZIAK ETA OSAGARRIAK

Erabiltzen ditugun jantziek, oinetakoek eta osagarriek modu askotara eragiten dute ingurumenean. Erabiltzen diren oihalak, markak, erosteko moduak (Internet bidez, dendan) eta horrelako alderdiak azter ditzake taldeak.

1. JARDUERA: PENTSA DEZAGUN INGURUMENEAN ERE!

Lau taldetan banatuko dira ikasleak, eta horietako bakoitzak 45 minutu izango ditu honako 4 jarduera hauetako bat antolatzeko:

- Erosketetarako eguna
- Urte Berri Jaia
- Hiru eguneko oporraldia apartamentu batean
- Ikasturte amaierako jaia.

Esleitu zaion jarduera gauzatu ahal izateko behar dituen gauza guztien zerrenda egingo du talde bakoitzak, zehatz-mehatz.

Lan hori egiterakoan, jarduera gauzatzeko berehalako zer aukera lituzketen edo zein liratekeen aukera ekonomikoenak aztertuko dute, eta ingurumenarekin errespetu handiagoz jokatzen duten aukerak bilatzen saiatuko dira.

Soineko bat erosten dugunean, esate baterako, faktore hauek hartzen ditugu kontuan: kostua, moda, estiloa, marka, ondo geratzen zaigun edo ez. Saia gaitezen

bidezkoak diren irizpide horiei irizpide ekologiko hau ere eransten: "errespetuz jokatzen du ingurumenarekin?".

Ariketaren helburua, beraz, ez da zero inpaktuko jarduerak antolatzea; aitzitik, haientzat garrantzitsuak diren jarduerak iraunkorragoak izan daitezen zer egin behar duten pentsarazi nahi diegu, beren eguneroko bizimoduan aplika ditzaketen aukerak bila ditzaten, ahalegin handiegirik egin beharrik gabe edota beren biziera gehiegi aldatu beharrik gabe.

Ondoren, bere jarduera gauzatzeko plan bat idatzi beharko du talde bakoitzak, eta ingurumen-inpaktuak murriztu ditzaketen elementuak nabarmenduko dira.

Amaitzeko, landu dutena azalduko die talde bakoitzak besteei, eta egindakoari buruzko gogoeta bateratu bat zuzenduko du irakasleak.

Erosketetarako eguna:

Talde honek gustuko duen moduan antolatuko du erosketetarako eguna: merkataritza-gune batean edo batzuetan edota denda ugariko kale batean, soilik jantziak erosteko edo bestelako produktuak ere erosteko (edergarriak, teknologia, eta abar); hara joateko modurik onena aukeratuko du, halaber, eta zenbat jendek parte hartuko duen, zer produktu erosiko dituzten eta zer dendatan ere erabakiko du.

Urte Berri Jaia

Talde honek nahi duen moduko festa bat antolatzen dutela imajinatuko du: apartamentu batean edo klub bateko areto bat alokatuz, eta egoki iruditzen zaion pertsona kopurua gonbidatuz. Festarako behar duten guztia antolatuko dute, eta, gero, zer jango duten eta zer edango pentsatuko dute, zer musika jarriko duten, etab.

Hiru eguneko oporraldia apartamentu batean

Hiritik kanpo, nahi duten tokian, oporraldi bat prestatu behar du talde honek, herrialdean bertan, atzerrian... Eta egokiena iruditzen zaien garraiobidea aukeratuko dute (autoa, trena, hegazkina, etab.). Taldeak apartamentu batean hartuko duenez ostatu, otorduak, ontziteria eta horrelakoak kontuan hartuta antolatu beharko dute guztia.

Ikasturte amaierako jaia

Ikasturte amaierako jaia antolatu behar du taldeak bere mailako ikaskideentzat, ikastetxeko instalazioetako batean. Jarduera osoa taldeak erabaki dezake, barnean hartuta catering zerbitzua erabili edo ez, jaiaren gaia, musika, etab.

5. IKUSPEGIA: KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINAK BIZTANLE ZAURGARRIENENGAN BEREZIKI

HELBURUAK:

- Klima-aldaketaren konplexutasuna eta dakarren ingurumen-inpaktua ulertzea.
- Arazoak sortzen dituzten ingurumen-gertakariek ekar ditzaketen ondorioak esperimentatzea.
- Oraingoz "urrutikotzat" jotzen dituzten arlo batzuetan ikasleen ikuspegia aldaraztea eta zenbait bizipen "biziaraztea", kanpoko gertaeren ondorioz ezinezkoak diruditen aukeren artean erabakitzera bultzatuz.
- Bizipen horri buruzko iruzkinetan, gaur egun pertsona askok horrelako erabakiak hartu beharra dutela ulertaraztea ikasleei, eta, oro har, pertsona behartsuenak edo baztertuenak izan ohi direla ikusaraztea.
- Gure eguneroko hautuetan gidari izan ohi ditugun balioen inguruan hausnartzea..

MATERIALAK:

- Bideoak erakusteko aukera
- Papera eta bolaluma
- Gela handi bat

IRAUPENA:

Klima-aldaketak izan ditzakeen ondorioei buruzko prestakuntza-saioa: 1 ordu.

Simulazio klimatikorako lantegia: 1 edo 2 ordu, narrazioaren arabera

GARAPENA:

Narrazioari heldu aurretik, ikasleei eskatuko diegu beren bizitzan funtsezkotzat

jotzen dituzten 5 balio idazteko orri batean (maitasuna, bakea, familia, aberria, aberastasuna, fedea, adiskidetasuna, etab.)

Erakutsi honako hau: https://www.youtube.com/watch?v=D9xFFyUOpXo

Arauak:

1. Hartu erabakiak zeure kabuz, ez jarraitu besteei.

2. Begiratu zer erabaki hartzen dituzten besteek, epaitu gabe, ez baitakigu zer motibazio dituzten.

3. Egon isilik narratzaileak berariaz norbaiti hartu dituen erabakiak zergatik hartu dituen azaltzeko eskatu arte.

4. Ez du inporta zer erabaki hartu dituzuen, jokoaren amaieran non zaudeten jabetzea da inporta duen bakarra. Simulazioan, aukeren txanda bakoitzean, aukeratu dezakezu, une horretan zauden tokian zaudela ere.

KLIMAREN INGURUKO GATAZKAREN SIMULAZIOA

Sarrera

Historia aurkeztuko du narratzaileak, ikasleak bete-betean sar daitezen kontakizun horretan; argi eta garbi esango du protagonistak ikasleak izango direla, ikastalde osoa, eta ez alegiazko pertsonaia batzuk.

Historia hau Batxilergoko azken urtean gertatuko da, uztailean, unibertsitatean sartzeko hautaprobaren ostean, zehazki. Guztiek gainditu zuten proba, eta nahi zuten nota lortu zuten. Onerako edo txarrerako elkarrekin hainbat urtez ibili ondoren, banandu aurretik elkarrekin bidaia bat egin behar dutela erabaki dute: opor gogoangarriak igaro nahi dituzte, Eivissan (edo beste nonbait).

Irteera eguna baino egun batzuk lehenago, urruti gertatu den fenomeno meteorologiko baten berriak iritsi dira.

https://www.youtube.com/watch?v=GO4QXJLkLfQ

Badirudi egoera larria dela, eta ondorioak izan ditzakeela beren herrialdean ere:

LEHEN HAUTUA:

Hiru aukera emango dizkie narratzaileak ikasleei. Gelako hiru txoko seinalatuko

ditu, eta argi esango die ezin direla mugitzen hasi hiru aukerak azaldu arte.

1. Txokora joango dira beren bizitzarekin ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzea erabakitzen dutenak: ikasturte amaierako bidaia eta dibertsioa. Azken batean, ez da nire arazoa.

2. Txokoan bilduko dira, aldiz, ez joatea erabakitzen dutenak, klima-aldaketaren aurkako eta larrialdiko neurriak hartzearen aldeko manifestazioetan parte hartzeko hemen geratzea erabakitzen dutenak.

3. Txokora joango dira, azkenik, konpromiso pertsonala hartzea eta tokiko jendeari laguntzeko eta kontrolik gabeko migrazio-fluxuak saihesteko boluntario gisa beren burua gatazka-gune horretarako aurkeztea erabakitzen dutenak.

Aukerak aurkeztu ostean, mugitzen hasteko gonbita egingo zaie.

LEHEN INFORMAZIO-BILERA

Talde bakoitzeko (A, B eta C) kide batzuei ea beren hautuaren zergatia azaldu nahi duten galdetuko die narratzaileak, eta, hala egiten badute, toki horretara joatera zer baliok bultzatu dituen azalduko dute.

Lehen ondorioak:

https://www.youtube.com/watch?v=AD_I5W6GsSs

Narrazioari helduko zaio berriro.

Gertaerak Espainian izango dituen ondorio saihestezinen lehen proiekzioak iritsiko dira: urak hartuko ditu gune ugari, Europako eta Ipar Amerikako toki askotan gertatu bezala. Larrialdi-egoera deklaratuko du herrialdeak, eta 16 urtetik 40ra bitarteko herritar guztien derrigorrezko erreklutatze militarra aginduko dute. Espazioa eta baliabideak konkistatu asmoz beste herrialde batzuekin gatazka armatuak izango dituztela uste da. Une horretan, jada ez dago “boluntariorik” gehiago. Deiari erantzuten ez diona desertore bihurtuko da, ondorio guztiekin.

Arauetan azaldu den legez, berdin du non dauden une horretan: aukera guztiak dira posible orain ere. Garrantzitsua izango da berriro gogoraraztea.

BIGARREN HAUTUA:

Hiru aukera emango dizkie narratzaileak ikasleei. Gelako hiru txoko seinalatuko ditu, eta argi esango die ezin direla mugitzen hasi hiru aukerak azaldu arte.

Kontuan hartu behar da aukerak zer ordenatan ematen diren, garrantzia baitu horrek ere.

1. Egoera kontuan hartuta deiari erantzutea eta, beraz, armadan sartu eta euspen-zonara abiatzea erabakitzen duten guztiak C txokora joango dira, aukera horri dagozkion ondorio guztiekin.

2. Armak hartzeko deiari erantzuteko asmorik ez dutenak B txokora joango dira; ez dute horretarako asmorik, oro har gerraren kontra daudelako edota irtenbide zehatz horren kontra daudelako. Desertore bihurtuko direnez, ezin izango dira itzuli beren etxera; ezkutatu egin beharko dute, eta zerbait egin beharko dute egoera horretatik ateratzeko.

3. A txokora joango dira, berriz, armak hartzeko deiari erantzuteko asmorik ez dutenak, nahiago dutelako arriskutik urrundu eta emigratu. Kontua da gerra-egoeran edota horrelako hondamendi batean ezin duzula emigratu aireportuan hegazkina hartuz eta erakusmahaian pasaportea erakutsiz: desertoreak dira. Beraz, hauxe da egoera: A gunea aukeratzen duenak Mediterraneoa gurutzatu beharko du (edo Mexikorekiko muga), eta Magreben aurkitu beharko du babesa; baina haren familiak aurrezki guztiak gastatu beharko ditu bidaia ordaintzeko, eta Espainian geratuko da, diru gehiagorik gabe. Asmoa aurrera jarraitzea da, eta familiako gainerako kideek ere emigratzea.

Beraz, laburbilduz:

A txokoa: zuek, desertoreak zaretenez, Afrikako iparraldean, eta zuen familiak, behartsu, Espainian.

B txokoa: zuek, desertoreak zaretenez, ezkutuan egongo zarete, etxetik eta familiatik urrun, Espainian, baina nahiko eroso.

C txokoa: zuek militarrak zarete, euspen-zona batean zaudete, eta zuen familia Espainian salbu dago, eroso.

Aukerak aurkeztu ostean, mugitzeko aukera emango zaie.

BIGARREN INFORMAZIO-BILERA

Talde bakoitzeko (A, B eta C) kide batzuei ea beren hautuaren zergatia azaldu nahi duten galdetuko die narratzaileak, eta, hala egiten badute, toki horretara joatera zer baliok bultzatu dituen azalduko dute. Garrantzitsua da parte-hartzaileek elkar ez

epaitzea, epaiketa oro saihestea: ez dakite hautu bakoitzaren atzean zer motibazio dauden. Adibidez, emigratzea erabaki zutenek agian lan bat aurkitzea zuten buruan, eta, gero, familiak ere emigratzea.

Bateratze-lanean, narratzaileak berriro esango die ez direla alegiazko pertsonaiak interpretatzen ari, beren burua ikusi behar dutela egoera horretan: hasiera batean, Eivissan egon behar zuten oporretan, eta, orain, gerran dabil bat, Kanadan dago bestea, eta herrialdean bertan dago ezkutatuta hirugarrena. Nola sentiarazten ditu egoera horrek? Gaur egungo kontu bati buruz galdera bat planteatzeko unea da: badaude une honetan munduan antzeko erabakiak hartu beharra duten pertsonak? Nor dira? Non daude?

Narrazioari lotuko gatzaizkio berriro

Egoera larriagotu egingo da: https://www.youtube.com/watch?v=GmjAp2eRDH0

Zoritxarrez, okertu egingo da egoera, eta ondorioak beren herrialdera ere iritsiko dira. Horren aurrean, gerra-legea ezarriko da. Iparraldeko herrialdeen artean, gatazka armatuak hasiko dira. Batzuek Hegoaldeko herrialdeei eraso egin nahi diete, tokia irabazteko.

HIRUGARREN HAUTUA:

Hiru aukera eskainiko dizkie narratzaileak. Gelako hiru txoko seinalatuko ditu, eta argi esango die ezin direla mugitzen hasi hiru aukerak azaldu arte.

Kontuan hartu behar da aukerak zer ordenatan ematen diren, garrantzitsua baita.

1. Soldatu gisa borrokatu nahi ez duten guztiak A txokora joango dira. Ez dago ezkutatzeko aukerarik jada. Txoko honetara joateak desertore gisa kartzelara joatea esan nahi du. Horrek dakartzan ondorio guztiekin.

2. Borroka egin edota kartzelara joan nahi ez duten guztiak eta, beraz, emigratzeko hautua egingo dutenak B txokora joango dira. Zoritxarrez, Afrika iparraldean daudenak desertoretzat hartuko dira, eta, nolabait pertsona horiek zigortzeko eta beren betebeharra betearazteko, euren familia kartzelaratuko dute.

3. C txokora joango dira esanekoak izan eta gerran soldatu izatea erabakitzen dutenak. Hainbat toki konkistatzea da kontua, Afrika iparraldean soilik, Libian eta Aljerian. Agintariek erabaki dute “etsaia ahularazi” eta mugiarazi behar dutela, jakineko operazio anker batzuen bidez. Gertuen duzuen herrixkara joateko eta 300 pertsona fusilatzeko agindua jaso duzue; emakume eta haurrak dira guztiak

Puntu horretara iristean, tarte bat utziko du narratzaileak, eta, gero, laburtu egingo ditu aukerak:

A txokoa: zuek desertoreak zarete, eta, beraz, kartzelan zaudete; zuen familia Espainian dago, baina salbu.

B txokoa: zuek desertoreak zarete, eta salbu zaudete Afrika iparraldean; zuen familia Espainian dago, kartzelan.

C txokoa: Zuek soldaduak zarete, gerrako gune batean, eta haur eta umeei tiro egitea hautatu duzue; zuen familia salbu dago Espainian.

HIRUGARREN INFORMAZIO-BILERA

Talde bakoitzeko (A, B eta C) kide batzuei ea beren hautuaren zergatia azaldu nahi duten galdetuko die narratzaileak, eta, erantzuna baiezkoa bada, zer baliok bideratu zituen toki horretara galdetuko die. Garrantzitsua da parte-hartzaileek elkar ez epaitzea. Nola sentitzen dira ezinezko erabaki horiek hartzerakoan? Errealitatean desberdina litzatekeela iruditzen zaie? Ezagutzen al dute gaur egungo munduan horrelako hautuak egitera behartuta sentitu diren pertsonen historiarik?

Narrazioari ekingo zaio berriro:

AZKEN AGERTOKIA:

1. https://www.youtube.com/watch?v=dtTooe6z-Pg
2. https://www.youtube.com/watch?v=yyD_67t7mI0

Hegoaldeko herrialdeak beren mugak ixten ari dira. Badirudi gerra dela bizi-espazioa eskuratzeko aukera bakarra.

Ondorio klimatikoak jasanezinak dira, gero eta okerragoak, eta, herrialdearen barruan, larria da egoera. Agintari nagusiek uste dute iritsi dela desertoreez arduratzeko garaia, eredu gisa balio dezan horrek eta, ildo beretik, gerrako ahaleginean parte hartzera bultzatzeko guztiak:

AZKEN AUKERA:

Hiru aukera eskainiko dizkie narratzaileak. Gelako hiru txoko seinalatuko ditu, eta

argi esango die ezin direla mugitzen hasi hiru aukerak azaldu arte.

Kontuan hartu behar da aukerak zer ordenatan ematen diren, garrantzia baitu horrek ere. Simulazio honetan, atal honen amaieran azken hautuaren ondoren parte-hartzaileak non egongo diren ikustea da garrantzitsuena. Argi utzi behar da kontzeptu hori.

3. Agintari nagusiek erabaki dute kartzelan dauden desertore guztiak hil egingo dituztela hurrengo goizean; beraz, A txokora joango dira azkenean heriotza-zigorra jasoko dutela erabakitzen duten guztiak.

4. B txokora joango dira emigratzea erabakitzen duten guztiak (posible da oraindik), baina, hori egiten badute, familia heriotza-zigorrera kondenatuko dute, eta hurrengo egunean hilko dituzte kide guztiak.

5. Heriotza zigorrik ez dutela jasoko eta beren familiak ere ez dituztela heriotza-zigorrera kondenatuko erabakitzen duten guztiak C txokora joango dira; hortaz, soldaduak izango dira. Txoko horretako pertsonei dei egingo diete etxera, eta bihar goizean fusilamendu-pelotoiko parte izango dira; A txokoko pertsona guztiak hil beharko dituzte, eta B txokoko pertsonen familia guztiak ere bai.

Etenaldi bat egingo da, eta berriro gogoraraziko zaie ez direla alegiazko pertsonaiak; aitzitik, beraien, lagunen eta familiako kideen bizitza da. Ondoren, isilik, erabakitzen duten txokora joango dira, eta hantxe geldituko dira simulazio amaieran.

AZKEN TXOSTENA

Parte-hartzaileak txokoetara joaten direnean, talde bakoitzeko batzuei nola sentitzen diren galdetuko die narratzaileak. Han egoteko zer balio izan zuten kontuan ere galdetuko die. Bateratzeko une hau luzeagoa izango da, eta pertsona gehiagori emango zaie hitz egiteko aukera.

Gaur egun horrelako egoeretan bizi direnekiko enpatia handiagoa izateko eta parte-hartzaileen zailtasunez jabetzeko baliatuko du une hau narratzaileak. Taldeen artean elkarrizketa sustatzeko aukera bat ere izan daiteke (narratzaileak posible dela ikusten badu), eta galderak eta iruzkinak egin ditzake horretarako.

Kontuan hartu behar da simulakro hau askotan egin izan dela, eta leku askotan. Eta, kasu gehienetan, hiru txokoetan zegoen jendea amaieran.

Bakoitza bere esertokira joan daitekeela esango die narratzaileak, eta azken

gogoetari ekingo diote.

Puntu honetan, oso aintzat hartu behar da zer-nolako eztabaida sortzen den; ez dira ahaztu behar helburuak.

Hona hemen lagungarri izan daitezkeen zenbait galdera:

Fedeaz:

1. Zure hautuetan gidatu zintuzten balioen artean ba al dago fedea? (Fedea ez da esaten den zerbait, hautu bat edo bestea egiterakoan gure bizitza gidatu behar duen zerbait baizik)
2. Zure iritziz, horrelako simulazio batean non legoke amaieran Jesus?

En el mundo actual:

3. Non ari dira gertatzen antzeko gauzak?
4. Noiz ari dira gertatzen horrelakoak?
5. Zergatik ari dira gertatzen antzeko gertaerak?
6. Nor daude horrelako egoeretan sartuta nagusiki?

Askotariko eztabaidak sortu daitezke.

